

2019/03/22, 18:00

2019/03/22

KOD.: 2218

A111-A112-A113-A114-A116-A117-A118-A120-A121-A122-A123

**LEHEN ARIKETA
LEHEN PROBA****Denbora, gehienez: 90 minutu.
Galderak: 90.**

| | |
|---------|----------|
| EREDUA: | D |
|---------|----------|

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun ereduak.
- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
 - Asmatuak: 1,00
 - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Ereduaren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan.
- Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

Eskerrik asko zure laguntzagatik

- 1.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea: Aukeratu OKERREKO erantzuna.
Lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, hauek izango dira toki-erakundeak:
 - a) Arabako lurralde historikoko kuadrillak.
 - b) Udalerria.
 - c) Kontzejuak.
 - d) Udalerrien elkarteak.

- 2.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen arabera: Aukera ezazu OKERREKOA:
 - a) Toki-erakundeek nortasun juridikoa izango dute, eta beren helburuak betetzeko gaitasun osoa.
 - b) Tokiko zerbitzu publikoak, ahal dela, udalerriak emango ditu, legitimitate demokratiko zuzena duen instantzia den aldetik, eta, hala egitea bideragarria ez bada edo efizientzia edo eraginkortasunagatik bestelakorik komeni bada, orduan, udalerriek berek eraturako beste toki-erakunde batzuek.
 - c) Arabako lurralde historikoaren kasuan, legeek edo foru-arauek aitortzen dizkieten eskumenak dagozkie kuadrillei.
 - d) Tokiko zerbitzu publikoak, lurralde historikoetako foru-arauen bidez arautzen denarekin bat, beste edozein toki-erakundek ere eman ahal izango ditu.

- 3.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen arabera: Aukeratu OKERREKO erantzuna.
Udalen eta gainerako toki-erakundeen zuzendaritza politikoaren eta gobernu-ekintzaren printzipioak dira, lege horretan ezarritakoaren arabera:
 - a) Herritarrekiko hurbiltasunaren printzipioa.
 - b) Ingurumen-jasangarritasunaren printzipioa.
 - c) Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren printzipioa.
 - d) Gardentasunaren printzipioa.

- 4.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea: Aukeratu ERANTZUN ZUZENA EDO OSOENA
Toki-erakundeek eskumen propio, transferitu edo eskuordetuetan sartzen ez den beste edozein jarduera, zerbitzu edo prestazio garatu ahal izango dute tokiko komunitatearen intereserako...
 - a) inoiz ez.
 - b) beti eta kasu guztietan.
 - c) baldin eta, lege honetan azaldutakoaren arabera, bikoiztasun-egoerarik sortzen ez bada eta erakundearen ogasun osoaren finantza-jasangarritasuna arriskuan jartzen ez bada.
 - d) baldin eta, lege honetan azaldutakoaren arabera, bikoiztasun-egoerarik sortzen ez bada.

- 5.- Bitarteko hauek baliatuz har dezakete esku toki-erakundeek herritarren jardueran:
 - a) Ordenantza eta bandoak.
 - b) Aldez aurreko baimena eta beste kontrol-ekintza prebentibo batzuk. Nolanahi ere, Zerbitzu-jardueretarako sarbide libreari eta horietan aritzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen aplikazio-eremuaren barruko zerbitzuetan sartzeari eta aritzeari dagokionez, bertan xedatutakoa aintzat hartu beharko da.
 - c) Banakoei dagozkien aginduak, bai egintza bat betearazteko, bai galarazteko.
 - d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

- 6.- 7/1985 Legearen 86.2 artikulua arabera, toki-erakundeentzat erreserbatuta daude jarduera edo laguntza-zerbitzu hauek: Adierazi OKERREKO erantzuna
 - a) Etxeetako ur-hornikuntza eta ur-arazketa.
 - b) Hondakinak bildu, tratatu eta ustiatzea.
 - c) Argiteria publikoa
 - d) Bidaiari-garraio publikoa

7.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera, langile guztien hautaketa, funtzionarioak nahiz lan-kontratudunak izan, enplegu-eskaintza publikoaren bitartez egin behar da,

- a) deialdi publikoaren bitartez.
- b) lehiaketa, oposizio edo oposizio-lehiaketa askearen bitartez.
- c) berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak errespetatuz, baita publikotasun-printzipioa ere.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

8.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. tituluaren aplikazio-eremua hau da:

- a) Probintzia-hiriburu diren udalerriei, 250.000 biztanletik gorako populazioa dutelarik.
- b) Probintzia-hiriburu diren udalerriei, 200.000 biztanletik gorako populazioa dutelarik.
- c) Probintzia-hiriburu diren udalerriei, 75.000 biztanletik gorako populazioa dutelarik.
- d) Probintzia-hiriburu diren udalerriei, 175.000 biztanletik gorako populazioa dutelarik.

9.- Biztanle-kopuru handiko udalerrietan, udalbatzari dagokio... Adieraz ezazu erantzun OKERRA:

- a) Udal ordenantza eta araudiak onetsi nahiz aldatzea.
- b) Planeamendu orokorraren hasierako onespina eta hirigintzaren alorreko legedian aurreikusitako antolakuntza-planen eta gainerako instrumentuen udal tramitazioari amaiera ematen dion onespina.
- c) Udal gobernuaren jardunbide nagusiak zehaztu eta haiei eutsiko zaiela bermatzea.
- d) Ekintza judizial eta administratiboak bideratzea, eta Udalbatzaren defentsa juridikoa, bere eskumeneko gaietan.

10.- Alkatearen zeregina da:

- a) Udaltzaingoaren buru izatea.
- b) Udalbatza arautzea.
- c) Aurrekontu-proiektu onestea.
- d) Lanpostuen zerrenda onestea.

11.- Espainiako Konstituzioaren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera: Adieraz ezazu erantzun ZUZENA.

- a) Espainiarrek eskubidea dute Espainian askatasunez sartu eta bertatik ateratzeko, legeak ezartzen duen moduan. Arrazoi politikoengatik bakarrik mugatu ahal izango da eskubide hori.
- b) Espainiarrek eskubidea dute Espainian askatasunez sartu eta bertatik ateratzeko, legeak ezartzen duen moduan. Arrazoi politiko edo ideologikoengatik mugatu ahal izango da eskubide hori.
- c) Espainiarrek eskubidea dute Espainian askatasunez sartu eta bertatik ateratzeko, legeak ezartzen duen moduan. Eskubide hori ezingo da mugatu arrazoi politiko edo ideologikoengatik.
- d) Espainian sartzeko eta bertatik ateratzeko eskubidea ez dago jasota Konstituzioan.

12.- Konstituzioaren 35. artikuluan jasota dagoen lanerako eskubideak hauek barne hartzen ditu:

- a) Laneko osasunaren babesa eta ordainsari nahikoa.
- b) Lanbide edo ogibidea askatasunez aukeratzea eta laneko negoziazio kolektiborako eskubidea.
- c) Lanbide edo ogibidea askatasunez aukeratzea eta lanean gora egitea, eta norberaren eta familiaren beharrianak asetzeko adinako ordainsaria.
- d) Lanean arrazoi laboralengatik diskriminatua ez izatea eta oinarrizko hezkuntza nahitaezkoa eta doakoa jasotzea.

13.- Espainiako Konstituzioaren 17. artikuluan ezarritakoaren arabera:

- a) Prebentziozko atxiloketak ezin iraungo du gertaerak argitzeko ikerketek behar duten denbora doia baino; betiere, gehienez hirurogeita hamabi orduko epean, aske edo aginte judizialaren esku utzi beharko da atxilotua.
- b) Prebentziozko atxiloketak ezin iraungo du gertaerak argitzeko ikerketek behar duten denbora doia baino; betiere, gehienez hogeita lau orduko epean, aske edo aginte judizialaren esku utzi beharko da atxilotua.
- c) Prebentziozko atxiloketak ezin iraungo du gertaerak argitzeko ikerketek behar duten denbora doia baino; betiere, gehienez berrogeita zortzi orduko epean, aske edo aginte judizialaren esku utzi beharko da atxilotua.
- d) Beharrezkotzat jotzen den denbora iraun ahal izango du prebentziozko atxiloketak, baldin eta legeak agintzen duen eran, atxilotuarentzako abokatu-laguntza bermatzen bada, polizia-eginbideetan eta eginbide judizialetan.

14.- Hemen dago jasota erlijio-askatasunerako eskubidea:

- a) Konstituzioaren 14. artikuluan.
- b) Konstituzioaren 25. artikuluan.
- c) Konstituzioaren 27. artikuluan.
- d) Konstituzioaren 16. artikuluan.

15.- Printzipio hauek aintzat harturik hautatuko dituzte erakunde publikoek beren langile funtzionario eta lan-kontratadunak:

- a) Gardentasuna
- b) Independentzia eta diskrezionalitate teknikoa hautaketa-organoen jardunean.
- c) Hautaketa-prozesuetan bizkortasunez jokatzea, objektibotasunari kalterik egin gabe.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

16.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, bitarteko funtzionario dira, urgentziak eta beharrak hala aginduta, berariaz justifikatutako arrazoiak direla-eta, berez karrerako funtzionarioei dagozkien eginkizunak betetzeko — zirkunstantzia hauetakoren bat egokitzen delarik— halakotzat izendatzen direnak: Adierazi OKERREKO erantzuna

- a) Plaza hutsak daudenean, baldin eta ezin badira karrerako funtzionarioekin bete.
- b) Aldi baterako programak betetzeko denean; programa horiek ezin izango dute hiru urtetik gorako iraupena izan, eta beste hamabi hilabetez luzatu ahal izango dira, estatutu hau garatzeko ematen diren Funtzio Publikoko legeen bidez.
- c) Zeregin-kopuru handiegia edo zeregin-pilaketa dagoenean; gehienez ere sei hileko epe baterako izango da, bi urteko tarte batean.
- d) Titularrak aldi baterako ordeztzeko denean.

17.- Adierazi erantzun ZUZENA EDO OSOENA:

- a) Aldi baterako programak betetzeko edo zeregin gehiegi dagoelako bi urteko epearen barruan gehienez ere sei hilabeterako izendatzen diren bitarteko langileek agintzen zaizkien eginkizunak bete ahal izango dituzte haiek hartu dituen administrazio-unitatean edo eginkizun analogoak betetzen dituen beste administrazio-unitateren batean, baldin eta unitate horiek, hurrenez hurren, aldi baterako programa horren aplikazio-eremuan parte hartzen duten unitateak badira artikuluko honetan adierazitako epemugarekin edota zeregin gehiegi badute.
- b) Aldi baterako programak betetzeko edo zeregin gehiegi dagoelako hamabi hilabeteko epearen barruan gehienez ere sei hilabeterako izendatzen diren bitarteko langileek agintzen zaizkien eginkizunak bete ahal izango dituzte haiek hartu dituen administrazio-unitatean edo eginkizun analogoak betetzen dituen beste administrazio-unitateren batean.
- c) Aldi baterako programak betetzeko edo zeregin gehiegi dagoelako hamabi hilabeteko epearen barruan gehienez ere sei hilabeterako izendatzen diren bitarteko langileek agintzen zaizkien eginkizunak bete ahal izango dituzte haiek hartu dituen administrazio-unitatean edo eginkizun analogoak betetzen dituen beste administrazio-unitateren batean, baldin eta unitate horiek, hurrenez hurren, aldi baterako programa horren aplikazio-eremuan parte hartzen duten unitateak badira artikuluko honetan adierazitako epemugarekin edota zeregin gehiegi badute.
- d) Bitarteko langileek agintzen zaizkien eginkizunak bete ahal izango dituzte haiek hartu dituen administrazio-unitatean edo eginkizun analogoak betetzen dituen beste administrazio-unitateren batean, baldin eta unitate horiek, hurrenez hurren, aldi baterako programa horren aplikazio-eremuan parte hartzen duten unitateak badira artikuluko honetan adierazitako epemugarekin edota zeregin gehiegi badute.

18.- Enplegatu publikoak honela sailkatzen dira:

- a) Karrerako funtzionarioak eta bitarteko funtzionarioak.
- b) Lan-kontratuko langileak, finkoak, mugagabeak nahiz aldi batekoak.
- c) Behin-behineko langileak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

19.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera, enplegatu publikoen eskubideak dira: Adieraz ezazu erantzun OKERRA:

- a) Beren eskura jarritako tresna digitalen erabileran eta bideozaintza- eta geolokalizazio-tresnen erabileraren aurrean intimitatea edukitzeko eskubidea, baita deskonexio digitalerako ere, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari dagokionez indarrean dagoen legedian ezarritako moduan.
- b) Egoera profesionalari dagozkion eginkizun eta atazak benetan betetzeko eskubidea, betiere, bere lanbide-karreraren izandako aurrerapen profesionalaren arabera.
- c) Lanpostuan irauteko eskubidea.
- d) Adierazpen-askatasuna izateko eskubidea, antolamendu juridikoaren mugak errespetatuta.

20.- Enplegatu publikoen obligazioa, interes pertsonala duten gaitan abstenitzekoa, baita lanpostu publikoarekin interes-gatazkak sortzeko arriskua izan lezaketen jardun pribatu eta gainerako interes guztietan ere,...

- a) printzipio etiko bat da.
- b) jokabide-printzipio bat da.
- c) herritarren eskubide bat da.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

21.- Hautaketa-prozesuetan parte hartu ahal izateko betebeharrak dira:

- a) Espainiar nazionalitatea edukitzea, beti eta kasu guztietan.
- b) Eskatutako titulazioa izatea.
- c) 18 urte beteta edukitzea eta nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adinetik gorakoa ez izatea.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

22.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera: Adieraz ezazu erantzun OKERRA.

- a) Hautaketa-organoak kide anitzekoak izango dira; profesionaltasun- eta inpartzialtasun-printzipioen arabera osatuko dira, eta emakumezkoen eta gizonezkoen arteko parekotasuna lortzen ahaleginduko dira.
- b) Hautespen edo izendapen politikoko langileek, bitarteko funtzionarioek eta behin-behineko langileek ezin izango dute parte hartu hautaketa-organoetan.
- c) Hautaketa-organoetako kide izatea norberaren izenean izango da beti, eta ezin izango da inoren izenean edo inoren ordezkari modura jardun.
- d) Hautaketa-organoetako kide izatea norberaren izenean izan ahalko da, edo besteren ordezkari gisa.

23.- Hemen dago jasota enplegatu publikoen jokabide-kodea:

- a) 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan —Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina—.
- b) Euskal Funtzio Publikoaren Legean.
- c) Toki Araubidearen Oinarrien 7/1985 Legean.
- d) Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean.

24.- Jokabide-printzipioak dira:

- a) Beren nagusien edo organo eskudunen jakinaren gainean jartzea, zerbitzuan diharduteneko unitatearen eginkizunak hobeto betetzeko beren ustez egoki diren proposamenak.
- b) Beren prestakuntza eta kualifikazioa eguneratuta edukitzea.
- c) Baliabide eta ondasun publikoak austeritatez administratzea, eta norberaren edo hurbilekoen mesederako ez erabiltzea. Baliabide eta ondasun horiek zaintzeko eginbeharra ere izango dute.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

25.- Enplegatu publikoak, zerbitzu-harremana amaitzea ekarri zuen arrazoi objektiboa desagertutakoan, funtzionario-izaera birgaitzeko eskaera egin ahal izango du, kasu hauetan: Adieraz ezazu erantzun OKERRA.

- a) Nazionalitatea galdu zuelarik.
- b) Zerbitzurako ezgaitasun iraunkorra dela-eta, erretiroa hartu zuelarik.
- c) Desgaikuntza dakarren zigor nagusia edo erantsia ezarri zaiola-eta funtzionario-izaera galdu duelarik, delitua nolakoa den eta zein egoeratan egin den aintzakotzat hartuta.
- d) Beti eta kasu guztietan, interesdunak eskatuta.

26.- Berdintasun-printzipioa, zeinen arabera espainiarrak legearen aurrean berdinak baitira, eta ezin den inolako bereizkeriarik egin jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein kondizio edo zirkunstantzia pertsonal edo sozial dela eta...

- a) Espainiako Konstituzioaren 25. artikuluan jasota dago.
- b) Espainiako Konstituzioaren 16. artikuluan jasota dago.
- c) Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan jasota dago.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

27.- Espainiako Konstituzioaren 25. artikuluan aurreikusitakoaren arabera:

Adieraz ezazu erantzun OKERRA:

- a) Askatasuna kentzeko zigoren eta segurtasun-neurrien helburua pertsona berreztea eta bergizarteratzea izango da, eta bortxazko lana ezarri ahal izango da.
- b) Espetxera kondenatua izanik zigor hori betetzen ari denari ere badagozkio kapitulu honetako oinarrizko eskubideak, salbu eta kondena-epaiaren edukiak, zigorraren zentzuak eta espetxe-legeak espresuki murrizten dizkietenak.
- c) Betiere, eskubidea izango du lan ordaindua egiteko eta Gizarte Segurantzian dagozkion onurak izateko, eta, orobat, kulturara irispidea izateko eta bere nortasuna osoki garatzeko.
- d) Administrazio zibilak ezin ezarriko du zuzenean edo zeharbidez askatasuna kentzea dakarren zigorrak.

28.- Hemen dago jasota hezkuntzarako eta erlijio-askatasunerako eskubidea:

- a) Espainiako Konstituzioaren 37. artikulua.
- b) Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua.
- c) Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua.
- d) Espainiako Konstituzioaren 32. artikulua.

29.- Politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidariak dira, Konstituzioan jasoak:

- a) Botere publikoek segurtatzen dute, halaber, babes osoa izango dutela seme-alabek, berdinak izanik legearen aurrean, edozein dela haien filiazioa, eta orobat amek, edozein dela haien egoera zibila. Legeak aukera emango du aitatasuna ikertzeko.
- b) Haurrek babes izango dute, haien eskubideak zaintzen dituzten nazioarteko hitzarmenek diotenaren arabera.
- c) Gurasoek era guztietako laguntza eman behar diete seme-alabei, ezkontzakoak izan zein ezkontzaz kanpokoak, adingabe diren bitartean eta legez hala dagokien gainerako kasuetan.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

30.- Hau da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen xedea:

- a) Lege honen xedea honako hauek arautzea da: administrazio-egintzak baliozko eta efikaz izateko betekizunak; administrazio publiko guztiek erkide duten administrazio-prozedura, barnean harturik zehapen-prozedura eta administrazio publikoen erantzukizuna erreklamatzeko prozedura; eta zer printzipiori jarraitu behar zaion legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzean.
- b) Lege honen xedea honako hauek arautzea da: administrazio-egintzak baliozko eta efikaz izateko betekizunak; administrazio publiko guztiek erkide duten administrazio-prozedura, bazter utzirik zehapen-prozedura eta administrazio publikoen erantzukizuna erreklamatzeko prozedura; eta zer printzipiori jarraitu behar zaion legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzean.
- c) Lege honen xedea honako hauek arautzea da: administrazio-egintzak baliozko eta efikaz izateko betekizunak; administrazio publiko guztiek erkide duten administrazio-prozedura, barnean harturik zehapen-prozedura eta Toki Administrazioa osatzen duten entitateen erantzukizuna erreklamatzeko prozedura; eta zer printzipiori jarraitu behar zaion legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzean.
- d) Lege honen xede eksklusiboa honako hauek arautzea da: administrazio-egintzak baliozko eta efikaz izateko betekizunak; administrazio publiko guztiek erkide duten administrazio-prozedura, barnean harturik zehapen-prozedura eta administrazio publikoen erantzukizuna erreklamatzeko prozedura; eta zer printzipiori jarraitu behar zaion legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzean.

31.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera, administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna izango dute:

- a) Adingabeek, guraso-ahala, tutoretza edo kuradoretza duen pertsona gabe beren eskubideez baliatzeko eta interesen alde egiteko.
- b) Adingabeek, beren eskubideez baliatzeko eta interesen alde egiteko, ordenamendu juridikoaren arabera hori guraso-ahala, tutoretza edo kuradoretza duen pertsona gabe egin dezaketen kasuetan.
- c) Adingabeek, beren eskubideez baliatzeko eta interesen alde egiteko, ordenamendu juridikoaren arabera hori guraso-ahala, tutoretza edo kuradoretza duen pertsonarekin egin dezaketen kasuetan.
- d) Adingabeek ez dute, inoiz ere, guraso-ahala duen pertsona gabe jarduteko gaitasunik.

32.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. artikulua arabera, administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna dutenek eskubide hauek dituzte haiekiko harremanetan:

- a) Administrazio publikoen eta agintarien erantzukizuna eskatzea, legez hala dagokionean.
- b) Datu pertsonalak babestea, eta bereziki administrazio publikoen fitxategi, sistema eta aplikazioetan jasota dauden datuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna izatea.
- c) Errespetuz eta begirunez tratatuak izatea agintarien eta enplegatu publikoen aldetik, erraztasunak emanez beren eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

- 33.- Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko legez ezarri den gehieneko epea eten daiteke kasu hauetan:
- Prozedura ebazteko ezinbestekoa bada jurisdikzio-organoak aldez aurretik irizpena ematea, epea etengo da irizpena eskatzen denetik —interesdunei komunikatu beharko zaie— Administrazioak hura jasotzen duen arte —hori ere komunikatu beharko zaie—.
 - Interesdunek proposaturik proba teknikoak edo azterlan kontraesanezko edo erabakigarriak egin behar direnean, epea etengo da emaitzak espedientearen sartzeko behar den denboran.
 - Itun edo hitzarmen baterako negoziazioak hasten direnean, betiere lege honen 86. artikuluan ezarritakoari jarraituz, epea etengo da negoziazioaren hasiera formala adierazten denetik negoziazioa ondorioz gabe amaitu arte, hala gertatzen bada; hori jasota geratuko da Administrazioak edo interesdunek egindako adierazpen baten bitartez.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 34.- Baliozkotzat jotzeko, baldintza hauek bete beharko dituzte administrazio-dokumentu elektronikoek:
- Aplikatzekoa den araudiaren arabera dagozkion sinadura elektronikoak izatea.
 - Edozein eratako euskarri elektronikoan artxibaturik izatea informazioa, identifikatzeko eta bereiziki tratatzeko modukoa den formatu baten arabera.
 - Eskatzen diren gutxieneko metadatuak izatea.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 35.- Ahal diskrezionalak baliatuz emandako egintzak, eta lege- edo erregelamendu-xedapen espresuren baten ondorioz hala behar dutenak...
- arrazoitu egin behar dira, egitateak eta zuzenbideko oinarriak labur adieraziz.
 - herritarren eskubideak murrizten dituztenean bakarrik arrazoitu beharko dira.
 - ez dira arrazoitu behar, ahal diskrezionalak direnez.
 - Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.
- 36.- Legez edo Europar Batasuneko zuzenbidean beste zenbaketarik adierazten ez den bitartean, epeak egunetan jartzen badira,...
- egun naturalak direla ulertuko da, eta larunbatak eta igandeak ere zenbatuko dira.
 - egun naturalak direla ulertuko da, eta ez dira zenbatuko larunbatak, igandeak eta jaiegunak.
 - egun baliiodunak direla ulertuko da, eta larunbatak, igandeak eta jaiegunak ere zenbatuko dira.
 - egun baliiodunak direla ulertuko da, eta ez dira zenbatuko larunbatak, igandeak eta jaiegunak.
- 37.- Erregistro elektronikoak erregela hauen arabera funtzionatuko du:
- Aukera emango du dokumentuak aurkezteko egun baliiodun guztietan, hogeita lau orduetan.
 - Egun baliiodunetan jarritako epeen zenbaketarako, eta interesdunek epeak betetzeari dagokionez, egun baliogabeen aurkeztutakoa hurrengo egun baliioduneko lehen orduan aurkeztutzat joko da, non eta arauren batek ez duen espresuki onartzen egun baliogabeen jasotzea.
 - Egun baliogabeen aurkeztu ziren ordu-hurrenkera berean aurkeztutzat joko dira dokumentuak. Egun baliogabeen aurkeztutako dokumentuak, hurrenkera berean, hurrengo egun baliiodunean aurkeztutakoak baino geroagokotzat joko dira.
 - Aukera emango du dokumentuak aurkezteko urteko egun guztietan, bulego-orduetan.
- 38.- Arrazoitu egin behar dira, egitateak eta zuzenbideko oinarriak labur adieraziz:
- Gerora sortutako arrazoiengatik jarraitzea materialki ezinezkoa delako prozedura amaitzea erabakitzen duten egintzak, eta ofizios hasitako prozeduretan Administrazioak atzera egiten duela erabakitzen dutenak.
 - Interesdunek proposatutako frogak baztertzeko dituzten egintzak.
 - Zehapen-prozeduretako ebazpen-proposamenak, eta zehapen-prozedurak edo ondare-erantzukizuneko prozedurak ebazten dituzten egintzak.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 39.- Administrazio Zuzenbideari dagozkion administrazio publikoen egintzak presuntzioz baliozkotzat hartuko dira eta ondorioak izango dituzte...
- ematen diren egunetik, haietan besterik xedatzen ez bada.
 - beti eta kasu guztietan, ematen diren egunetik, eta ezingo da atzeratu baliozkotasuna inolaz ere.
 - argitaratzen diren egunaren biharamunetik.
 - Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

40.- Jakinarazpen oro epe honetan egin beharko da:

- a) Hamar eguneko epean, egintza ematen den egunetik.
- b) Hamabost eguneko epean, egintza ematen den egunetik.
- c) Hilabeteko epean, egintza ematen den egunetik.
- d) Zortzi eguneko epean, egintza ematen den egunetik.

41.- Administrazio-egintzak argitaratu egin beharko dira, eta horrek jakinarazpen-ondorioak izango ditu, honako kasu hauetan:

- a) Zehaztu gabeko hartzaile-talde bati zuzendutako egintza bada.
- b) Hautaketa-prozedura bateko egintzak direnean.
- c) Lehia-konkurrentziako prozedura bateko egintzak direnean.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

42.- Adierazi erantzun zuzena edo osoena:

- a) Egintza baten deuseztasunak edo deuseztagarritasunak lehenengotik bereziak diren prozedurako hurrengoena ekarriko du.
- b) Egintza baten deuseztasunak edo deuseztagarritasunak ez du ekarriko prozedurako hurrengoena.
- c) Egintza baten deuseztasunak edo deuseztagarritasunak ez du ekarriko lehenengotik bereziak diren prozedurako hurrengoena.
- d) Egintza baten deuseztasunak edo deuseztagarritasunak prozedurako hurrengoena ekarriko du.

43.- Administrazio-bidean irmoak diren egintzen kontra...

- a) gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango da.
- b) berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango da.
- c) berrikusteko errekurtsua berezia bakarrik aurkeztu ahal izango da.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

44.- Administrazio-bidea bukatu egiten dute hauek:

- a) Gorako errekurtsuen ebazpenak.
- b) Ondare-erantzukizuneko prozeduren administrazio-ebazpenak, edozein dela ere hura ekarri duen harreman-mota, publikoa nahiz pribatua.
- c) Prozedura amaitzekoak diren akordio, itun, hitzarmen edo kontratuak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

45.- Adierazi erantzun zuzena edo osoena:

- a) Errekurtsu-jartzaileak errekurtsuari okerreko kalifikazioa jartzeak eragotzi egingo du hura izapidetzea.
- b) Errekurtsu-jartzaileak errekurtsuari okerreko kalifikazioa jartzea edo ez jartzea ez da eragozpen izango hura izapidetzeko, haren benetako izaera argi ageri ez bada ere.
- c) Errekurtsu-jartzaileak errekurtsuari okerreko kalifikazioa jartzea edo ez jartzea ez da eragozpen izango hura izapidetzeko, argi ageri bada haren benetako izaera.
- d) Errekurtsu-jartzaileak errekurtsuari okerreko kalifikazioa jartzea edo ez jartzea ez da eragozpen izango errekurtsua izapidetzeko.

46.- Gora jotzeko errekurtsuaren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hau izango da:

- a) hiru hilabetekoa
- b) bi hilabetekoa
- c) sei hilabeteko
- d) Ez dago eperik.

47.- Berraztertzeko errekurtsua jartzeko epea hau izango da:

- a) bi hilabetekoa, egintza espresua denean.
- b) hilabetekoa, egintza espresua denean.
- c) hiru hilabetekoa, egintza espresua denean.
- d) gaiaren mende dago.

48.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen esparruak hauek hartzen ditu:

- a) Kostu bidez egindako kontratuak, horien izaera edozein dela ere.
- b) Botere adjudikatzailetzat hartzen diren erakundeek diruz laguntzen dituzten eta beste pertsona fisiko nahiz juridiko batzuek erregulazio harmonizatuko kontratu diruz lagunduei buruzko 23. artikuluan jasotako kasuetan egiten dituzten kontratuak.
- c) Autonomia-erkidegoek eta Toki-administrazioa osatzen duten erakundeek egiten dituzten kontratuak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

49.- 9/2017 Legearen ondorioetarako, honako erakunde hauek osatzen dute sektore publikoa:

- a) Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateak.
- b) Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak.
- c) Organismo autonomoak, unibertsitate publikoak eta agintari administratibo independenteak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

50.- 9/2017 Legearen ondorioetarako, honako erakunde hauek osatzen dute sektore publikoa:

- a) Estatuko Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoetako administrazioak, Ceuta eta Melilla hiri autonomoak eta Toki-administrazioa osatzen duten erakundeak.
- b) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak aipatzen dituen enpresa-erakunde publikoak, eta nortasun juridiko propioa duen zuzenbide publikoko edozein erakunde, sektore publikokoa den subjektu bati lotutakoa edo haren mendekoa dena.
- c) Euskadiko foru aldundi eta batzar nagusiak, beren kontratazio-jarduerari dagokionez.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

51.- 9/2017 Legearen ondorioetarako, honako erakunde hauek osatzen dute sektore publikoa:

- a) Organismo autonomoak, unibertsitate publikoak eta agintari administratibo independenteak.
- b) Nortasun juridikorik gabeko funtsak.
- c) Fundazio publikoak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

52.- 9/2017 Legearen ondorioetarako, honako hauek jotzen dira botere adjudikatzailetzat:

- a) Alderdi politikoak, Alderdi Politikoaren Finantzaketari buruzko 8/2007 Lege Organikoaren 1. artikuluan definitutako zentzuan.
- b) Askatasun Sindikalari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoan araututako sindikatu-erakundeak.
- c) Apirilaren 1eko 19/1977 Legeak aipatzen dituen enpresa-erakundeak eta profesionalen elkarteak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

53.- 9/2017 Legearen ondorioetarako, honako hauek jotzen dira botere adjudikatzailetzat:

- a) Administrazio publikoak.
- b) Alderdi politikoak, Alderdi Politikoaren Finantzaketari buruzko 8/2007 Lege Organikoaren 1. artikuluan definitutako zentzuan.
- c) Askatasun Sindikalari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoan araututako sindikatu-erakundeak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

54.- 9/2017 Legearen ondorioetarako, honako hauek jotzen dira botere adjudikatzailetzat:

- a) Fundazio publikoak.
- b) Alderdi politikoak, Alderdi Politikoaren Finantzaketari buruzko 8/2007 Lege Organikoaren 1. artikuluan definitutako zentzuan.
- c) Apirilaren 1eko 19/1977 Legeak aipatzen dituen enpresa-erakundeak eta profesionalen elkarteak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

55.- 9/2017 Legearen eremutik kanpo geratzen dira:

- a) Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutualitateak.
- b) Askatasun Sindikalari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoan araututako sindikatu-erakundeak.
- c) Apirilaren 1eko 19/1977 Legeak aipatzen dituen enpresa-erakundeak eta profesionalen elkarteak.
- d) Funtzionario publikoen zerbitzu-harremana.

56.- Erregulazio harmonizatuaren mende daude zerbitzu-kontratuak balio zenbatetsi hau edo handiagoa dutelarik:

- a) 144.000 euro, Estatuko Administrazio Orokorrek, haren organismo autonomoek edo Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek eta zerbitzu erkideek adjudikatu beharreko kontratuak baldin badira.
- b) 140.000 euro, Estatuko Administrazio Orokorrek, haren organismo autonomoek edo Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek eta zerbitzu erkideek adjudikatu beharreko kontratuak baldin badira.
- c) 150.000 euro, Estatuko Administrazio Orokorrek, haren organismo autonomoek edo Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek eta zerbitzu erkideek adjudikatu beharreko kontratuak baldin badira.
- d) 200.000 euro, Estatuko Administrazio Orokorrek, haren organismo autonomoek edo Gizarte Segurantzako entitate kudeatzaileek eta zerbitzu erkideek adjudikatu beharreko kontratuak baldin badira.

57.- Sektore publikoko entitateek egiten dituzten kontratuak formalizatzeko dokumentuek, aipamen hauek jaso beharko dituzte nahitaez, salbu eta lehendik baldintza-agirietan jasota badaude: ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA

- a) Kontratuari aplikatzekoa zaion legeria.
- b) Prezio zehatza, edo zehazteko modua.
- c) Hala egokitzuz gero, kontratistari ezartzen zaion konfidentzialtasun-betebeharrak zer hartzen duen eta zenbat denborarako den.
- d) Kontratuaren gutxi gorabeherako prezioa.

58.- Sektore publikoko entitateek egiten dituzten kontratuak formalizatzeko dokumentuek, aipamen hauek jaso beharko dituzte nahitaez, salbu eta lehendik baldintza-agirietan jasota badaude:

- a) Kontratuari aplikatzekoa zaion legeria.
- b) Prezio zehatza, edo zehazteko modua.
- c) Hala egokitzuz gero, kontratistari ezartzen zaion konfidentzialtasun-betebeharrak zer hartzen duen eta zenbat denborarako den.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

59.- Enpresaburuaren gaitasuna eta kaudimena hemen daude araututa:

- a) Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 25. artikulua.
- b) Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 35. artikulua.
- c) Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 65. artikulua.
- d) Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 165. artikulua.

60.- Ordenamendu juridikoaren iturriak dira: ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA

- a) Legea
- b) Jurisprudentzia
- c) Ohitura
- d) Zuzenbidearen printzipio orokorrak

61.- Lege aplikagarria hala nahita baztertzea eta lege horretan aitortutako eskubideei uko egitea baliozkoak izango dira, bakarrik...

- a) beti
- b) inoiz ez
- c) interes edo ordena publikoa hautsi ez eta ez dietenean hirugarrenei kalterik egiten.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

62.- Polizia-legeek hauek behartzen dituzte:

- a) Espainiako lurraldean dauden pertsona guztiak.
- b) Espainiar nazionalitatea duten pertsonak.
- c) Europar Batasuneko nazionalitatea duen pertsonak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

- 63.- Espainiak atzerrian dituen diplomazia eta konsulatuetako funtzionarioek baimendutako kontratuei, testamentuei eta gainerako egintza juridikoei...
- egiten diren herrialdeko legea aplikatuko zaie.
 - Espainiako legea aplikatuko zaie.
 - Espainiako legea edo egiten diren herrialdekoa aplikatuko zaie, egiten dituen pertsonaren aukeran.
 - Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.
- 64.- Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen arabera, prebentzio-ekintzaren printzipio orokorrak dira:
- Saihetsi ezin diren arriskuak ebaluatzea.
 - Babes kolektiboa indibidualaren aurretik jartzen duten neurriak hartzea.
 - Teknikaren eboluzioa kontuan hartzea.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 65.- Langileen prestakuntza, laneko arriskuen prebentzioaren arloan:
- Berariaz lanpostuan zentratuta egon beharko du.
 - Ahal den guztietan, lanaldiaren barruan eman beharko da.
 - Enpresaren beraren bitartekoak baliatuz eman ahal izango da, edo besteren zerbitzuen bitartez.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 66.- Laneko arriskuen prebentzioaren inguruan, enpresaburuak langileak kontsultatu beharko ditu honen inguruan:
- Larrialdi-neurriez arduratuko diren langileen izendapena.
 - Enpresan dauden arrisku profesionalen prebentziorako eta osasuna babesteko jardueren antolaketa eta garapena.
 - Prebentzio-arloko prestakuntzaren proiektua eta antolaketa.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 67.- 3001 langiletik 4000ra bitarteko enpresetan, prebentzio-ordezkarien kopurua hau da:
- 7
 - 11
 - 8
 - 6
- 68.- Bere eskumenez baliatzeko, ahalmen hauek izango ditu Segurtasun eta Osasun Batzordeak:
- Prebentzio zerbitzuen oroit-idazkia eta urteko programazioa ezagutu eta horiei buruzko txostena egitea.
 - Arriskuen prebentzioari dagokionez lanlekuen egoera zuzenean ezagutzea; horretarako egokitzat jotzen dituen bisitak egin ahalko ditu.
 - Bere zereginak betetzeko ezagutu behar dituen agiri eta txosten guztiak eskura izatea, lan baldintzekin lotutakoak zein prebentzio zerbitzuaren jarduerak sortutakoak, halakorik bada.
 - Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- 69.- Prebentzio-ordezkarien kopurua zehazteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:
- Izendapenaren aurreko urtean lanean egindako lanegunen arabera zenbatuko dira urtebete arteko epe-muga duten kontratatuak. Lanean egindako ehun eta berrogeita hamar egun edo zatiko langile bat gehiago zenbatuko da.
 - Izendapenaren aurreko urtean lanean egindako lanegunen arabera zenbatuko dira urtebete arteko epe-muga duten kontratatuak. Lanean egindako berrehun egun edo zatiko, langile bat gehiago zenbatuko da.
 - Izendapenaren aurreko urtean lanean egindako lanegunen arabera zenbatuko dira urtebete arteko epe-muga duten kontratatuak. Lanean egindako berrehun eta berrogeita hamar egun edo zatiko, langile bat gehiago zenbatuko da.
 - Izendapenaren aurreko urtean lanean egindako lanegunen arabera zenbatuko dira urtebete arteko epe-muga duten kontratatuak. Lanean egindako hirurehun egun edo zatiko langile bat gehiago zenbatuko da.

70.- Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako 4/2005 Legearen arabera, botere publikoen jarduna arautu eta bideratu behar duen printzipioa da: ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA

- a) Ekintza positiboa
- b) Soldata-arrakala desagerraraztea
- c) Ordezkaritza orekatua
- d) Genero-ikuspegiaren integrazioa

71.- Aukera-berdintasuna, gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako printzipio orokor gisa, hemen dago jasota:

- a) Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Legearen 3. artikuluan.
- b) Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan.
- c) Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 25. artikulua.
- d) Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena.

72.- Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan egiten diren berdintasun-politikak aztertzea eta 4/2005 Legea zein neurritan betetzen den ebaluatzea...

- a) printzipio orokor bat da.
- b) legearen helburu bat da.
- c) autonomia-erkidegoko administrazioaren zeregin bat da.
- d) Ez dago jasota legean.

73.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen eremu subjektiboa hau da: ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA

- a) Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu komunak; Gizarte Segurantzarekin lankidetzan jarduten diren lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen mutuak.
- b) Merkataritza-sozietateak, artikuluko honetako entitateek 100eko 60 baino gehiagoko partizipazio zuzen edo zeharkakoa badute haien kapital sozialean.
- c) Fundazioei buruzko legerian aurreikusten diren sektore publikoko fundazioak.
- d) Zuzenbide publikoko korporazioak, administrazio-zuzenbidearen mendeko jardueri dagokienez.

74.- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen 14. artikulua arabera, informazioa eskuratzeko eskubidearen mugak dira: ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA

- a) Sekretu profesionala eta jabetza intelektual eta industrialak.
- b) Prozesu judizialeko aldean berdintasuna eta benetako babes judiziala.
- c) Ekonomia- eta moneta-politika.
- d) Informazioa eskuratzeko eskubidea ezin da mugatu.

75.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen aplikazio-arauak —VI. titulua—, hauei aplikatuko zaizkie: ADIERAZI OKERREKO ERANTZUNA

- a) Arabako lurralde historikoko kuadrilla, ermandade eta kontzejuei.
- b) Partzuergoei eta gainerako erakunde instrumentalei, tokiko kapital publikoaren partaidetza nagusitzen bada edo nagusitasunezko lekua toki-erakunde batek badu.
- c) Udalerriei.
- d) Udal-enpresa publikoei, artikuluko honetan aurreikusitako erakundeek ehuneko 60 baino gehiagoko partizipazio zuzen edo zeharkakoa badute haien kapital sozialean.

76.- 2/2016 Legearen 52. artikulua arabera, erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioari dagokienez, hauek dira gardentasunen arloko gutxieneko betebeharrak: Adierazi OKERRAKOA

- a) Erakunde bakoitzean behin-behinekoak diren lanpostuen zerrenda.
- b) Alkatearen eta zinegotzien arduraldi-araubidea.
- c) Toki-ordezkarien ondasun eta jardueri buruzko urteroko aitorpenak, indarrean dagoen legerian ezarritako eran.
- d) Udalean ordezkaritza duten atal sindikalei buruzko informazioa.

77.- Administrazio-prozedura baten ebazpena jakinarazteko gehieneko epea, prozedura arautzen duen arauak adierazten ez badu, hau izango da:

- a) Hiru hilabete.
- b) Sei hilabete.
- c) Hilabete.
- d) Urtebete.

78.- Udal instalazio hauetatik, zeinek du rokodromoa?

- a) Ariznabarreko kiroldegia
- b) Aranaldeko kiroldegia
- c) Mendizorrotzeko pabilioia
- d) Olaranbeko kiroldegia

79.- Instalazio hauetatik, zein ez da kultur instalaziotzat jotzen?

- a) Mendizorrotzeko kirol-esparrua
- b) Iradier Arena
- c) Iparraldeko ludoteka
- d) Salburuko gizarte-etxea

80.- Zerbitzu hauetatik, zein ez dagokio gizarte-etxe bati?

- a) Ludoteka
- b) Kzgunea
- c) KirolKluba
- d) Sukaldaritza lantegia

81.- Herritarrei arreta emateko hainbat bide jartzen ditu Gasteizko Udalak haien eskura, izapide guztiak era azkar eta erosoan egiterik izan dezaten. Adierazi zen den bide OKERRA, izapideak egiteko.

- a) Aurrez aurreko arreta - Herritarrei laguntzeko bulegoak
- b) Telefono bidezko arreta - 010 telefonoa
- c) Internet bidezko arreta - Udala online
- d) Watshapp bidezko arreta - Salaketa-argazkia

82.- 010 telefonoari gagozkiolarik: Aukera OKERRA adierazi

- a) Udalari eta bertako zerbitzuei buruzko informazioa eskuratzeko balia daiteke.
- b) Jendaurreko ordutegi etengabea du, 24 orduz, astean zazpi egunez.
- c) Kexak eta iradokizunak egiteko balio du.
- d) Gizarte-etxeetako jardueretarako zozketan izena emateko aukera ematen du.

83.- Herritarren postontziari gagozkiolarik... Aukera OKERRA adierazi

- a) Herritarren postontzian era publikoan nahiz pribatuan parte har daiteke
- b) Herritarren postontziaren erabilera guztiz librea da, inongo mugarik gabe.
- c) Parte hartzeko, ziurtagiri digital baten bitartez edo Herritarren Udal Txartelaren bitartez identifikatu beharra dago.
- d) On line bakarrik erabil daitekeen zerbitzua da Herritarren postontzia.

84.- Zerbitzu hauetatik, zein jotzen da zuzendaritza-organotzat?

- a) Koordinazio Nagusiaren Zerbitzua
- b) Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiaren Zerbitzua
- c) Udalbatzaren Bulegoaren Zerbitzua
- d) Kontratazio Zerbitzu Nagusia

85.- Sail honen barruan dago Garbiketa Zerbitzua:

- a) Hirigintza
- b) Udal Administrazioa
- c) Espazio Publikoa eta Ingurumena
- d) Funtzio Publikoa

86.- Adieraz ezazu zein zen 2018an biztale gehien zituen Gasteizko auzoa:

- a) Koroatzea
- b) Arriaga-Lakua
- c) Sansomendi
- d) Salburua

87.- Adieraz ezazu hauetatik zein den menpeko toki-erakunde bat:

- a) Judimendi
- b) Sansomendi
- c) Aztegieta
- d) Adurtza

88.- Gasteizko biztanleriari gagozkiolarik... Adierazi baieztapen OKERRA EDO FALSUA

- a) Gasteizko biztanleen artean, gehiago dira Afrikatik etorriak Ameriketatik etorriak baino.
- b) Gasteizko zentsuan emakumezko baino gizonezko gehiago dago.
- c) Espainiar nazionalitatea dutenen eta atzerritarren portzentajeak 10/9 eta 10/1 dira, hurrenez hurren.
- d) Gasteizko zentsuko biztanleen kopurua 250.000tik gorakoa da.

89.- Udal Erregistroaren zeregina da:

- a) Udalean entregatzen diren idazki eta komunikazioak ofizialki jasota uztea.
- b) Herritarren udal txartela izapidetzea.
- c) Udalari eta hiriari buruzko informazioa ematea.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

90.- 7/1985 Legearen 13. artikulua arabera, udalerriak sortu edo ezabatzea, baita udal-mugarteak aldatzea ere,...

- a) toki-araubideari buruzko autonomia-erkidegoetako legediak arautuko du, baina udal-mugarteak aldatzeak inola ere ez du probintzietako mugak aldatzerik ekarriko.
- b) toki-araubideari buruzko Estatuko legediak arautuko du, baina udal-mugarteak aldatzeak inola ere ez du probintzietako mugak aldatzerik ekarriko.
- c) toki-araubideari buruzko Estatuko legediak arautuko du, baldin eta udal-mugarteak aldatzeak probintzietako mugak aldatzea ekarriko badu.
- d) Ez dago udal-mugarteak aldatzerik.